




Atzera begiratzeko unea

Lautadako profesionalak aurre egin diote pandemiari / 2


S. PEREZ DE MUNIAIN



Udalak jasangarriago egiteko lanetan, herritarrak bidelagun izan beharko dira etorkizunean / 8



Burguko Teknoklubak hiru talde osatu ditu First Lego League txapelketan parte hartzeko / 11



Ana Diaz de Espada: "Pandemiarekin jendeak artea berraurkitzeko aukera izan du" / 14



Sorkuntza erakartzeko erreferente bihurtu da Garaion azken urteotan / 18



Dupla: "Euskal tiktokeroak eta youtuberrak behar dira, sortzeko daude oraindik" / 20



Osasunaren arloko langileak lehen lerroan aritu dira pandemian zehar. M. ARRAZOLA / IREKIA

Isilpean zabaldu den tsunamia

Covid-19aren krisiak gogor astindu ditu sektore guztiak, eta hau mundu osoko fenomeno da. Baina gertueneko espazioetara jaitsita ikusten da hoberen pandemiak izan duen inpaktua. Kontuan hartzeko moduko irakaspenak dira.

Juanma Gallego AGURAIN

Antena 3 telebista katean arratsaldeko lehen orduetan jarri ohi duten film kaskar horietako bat lehen pertsonan bizitzea. Horixe izan zen gurean Covid-19a zabaltzen hasi zenean jende ugari partekatutako sentsazioa. Egun batetik bestera gauzak okertzen zireneko pertzepzioa. Denborarekin, ordea, egoera barneratzen ari den susmoa da agian gehien nagusitzen ari dena, noizbait gauzak aurreko egoerara bueltatuko diren itxaropenarekin batera.

Urtebete pasata, historiaren lehen zirriborroa egiteko unea iritsi da. Seguruenera, liburu marduletan Osasunaren Mundu Erakundearen erabakiak, txertoen gaineko mugimendu geopolitikoak edota gizarte eta ekonomia desberdinetako ohiturak hankaz gora jarri dituzten por-

taera berriak azalduko dira. Alabaina, objektibo angeluhandia kendu eta makroa jartzean ulertzen da hoberen isil-isilean baina batere gupidarik gabe mundu osoa hartu duen pandemiaren ibilbidea.

Badira lehen lerroan bizi izan dutenak, eta horien testigantza jaso nahi izan dugu, besteak beste, isilpeko protagonistak izan direlako. Horietako bat Haizea Ibañez de Opakua gazte aguraindarra izan da. Bi urte besterik ez daramatza lanean, anbulantzietako osasun larrialdietarako teknikari gisa. Bada,

BADIRA KRISI HAU LEHEN PERTSONAN BIZI DUTENAK, ETA HAIEN TESTIGANTZA JASO NAHI IZAN DUGU

bi urte horietatik bat pandemiari atxikita egon da haren jarduna, eta ez da batere erraza izan. Covid-19ak jota zeudenak artatzeko anbulantzian ibili da. "Nahiko zortea izan dut, soilik iazko urtearen amaieran lan egin nuelako anbulantzia horretan. Baina denbora gehiago eman duten lankideek oso une gogorak bizi izan dituzte. Pentsa; etxe batera iritsi, aita, aitona edo amona jasotzeko... eta bertan zeuden guztiak bazekiten hori seguruenera behin betiko agurra zela. Oso latza izan da".

Hogei urterekin, krisiak bi aldeetatik jo du osasun langilea. "Maila pertsonalean, pandemiak lagunekin partekatutako aisialdia kendu dit. Lanetik etxera eta etxetik lanera eman dut denbora asko". Horrez gain, lagunekin egoteko parada izan duenean ere, berarentzat bederen

gauzak ez dira berdinak izan. "Ahal zenean, lagunak poteoan geratzen ziren, baina nik askotan ezin nuen, lanean ikusitakoa ezin nuelako burutik kendu. Tira, zure aurrean pertsona bat hiltzen denean, ez da erraza poteoan ibiltzea". Bestalde, osasun krisiaren tamainaz ohartuta, inguruan ikusitakoa zaila egin zaio Ibañez de Opakuari. "Kañak hartzen ari zarenean edo supermerkatuara joaten zarenean, jende pilaketak ikusten dituzunean... horrek pena pixka bat ematen dizu. Nik badakit askotan jendeak kezka eta ardua dituela, baina, noski, ez dute bizi nik bizitako berdina". Halere, gazteen defentsan atera da osasun langilea. "Askotan gazteei errua bota digute, baina adin eta sektore guztietakoak dira gauzak ondo zein gaizki egin dituztenak. Hau guztia zerbait berria izan da denentzat, eta norberak ahal izan duena egin du".

Gertuko aholkuak

Gauzak ahal moduan egiteko behar hori batez ere erabakigarria izan zen pandemiaren lehen urratsetan. Eta lubaki horretan ibili ziren, buru-belarri, farmazialariak. "Hasieran informazio falta izugarria egon zen; ziurgabetasun asko zegoen, eta inprobisatu behar izan genuen", gogoan du Dulantziko Angulo Arce botikako farmazialari Javier Angulok. "Norberak hoberen ikusten zuen moduan hartzen

zituena babes neurriak". Egun latz horietan, farmazialariak antzeko birusen transmisioa galarazteko ezagutzen ziren estrategiak martxan jartzen hasi ziren, eta askotan beste kideengana jotzen zuten, aterabiderik hoberenak lehenesteko. "Zuk zeuk neurri batzuk hartu eta astebetera iristen ziren neurri ofizialak".

Egun horietan, bezeroak neurri horien beharrez kontzientziaztea zaila izan zen. "Orain naturalizat hartzen dugu bezero bat barruan egotea eta beste bat kanpoan izatea, baina duela

"JENDEAK BADU ARDURA; BAINA EZ DUTE BIZI NIK BIZI IZAN DUDANA"

HAIZEA IBAÑEZ DE OPAKUA, LARRIALDIETAKO LANGILEA

"BOTIKA GUZTIETAN KONTUAN HARTZEN DIRA ONURAK ETA ARRISKUAK"

JAVIER ANGULO, FARMAZIALARIA

"GAZTE ZIRENEAN, GARAI LATZAK BIZI ZITUZTEN; ETA ORAIN HAU ETORRI ZAIE"

REBEKA GONZALEZ DE ALAIZA, SALLURTEGIKO ERIZAINA

urtebete ez zen hain erraza jendeari hori ulertaraztea".

Idea asko bai, baina, une horietan babes materialen falta izan zen zailena. "Eskerrak Farmazialarien Elkargo Ofizialaren bidez maskarak eta pantailak lortu genituela. Horrela, gure buruak babesteko, bederen, bageneukan zerbait".

Hasierako zalantza horiek gaudituta, orain jendearen kezka nagusia txertoen haritik dator. Bada, informazio instituzionala hankamotz eta zabuka dabilen garaian, oraingoan ere gertuko profesionalen aholkariaren aho-aterpe bilatzea da hobereena. "Egunero erabiltzen ditugun botika askok txertoek baino albo ondorio ugariagoak izan ditzakete", argitu du adituak. "Erreakzio horiek ikertu behar dira, noski; eta, loturarik egonez gero, erreakzioen intzidentzia zein den ikusi behar da".

Gogoratu duenez, botika guztietan ebatzi behar da zein den onuren eta kalteen arteko balantzea, eta, horren arabera, erabakiak hartu. AstraZeneca txertoari ustez lotutako odol-bildu kasuei dagokienez, emakume askok antisorgailu gisa hartutako hormonetan lotura hori aurkitu dela nabarmendu du, eta, gogoratu du albo kalteen intzidentzia tasaren zein onura eta arriskuen balantze horren arabera hartzen direla botika horiek hartzeko irizpideak.

Adinekoak, gogoan

Txertoen garapen azkar honek suposatuta duen mirariak konturatzeko agian hamarkadak behar izango dira. Momentuz, birusa-

PANDEMIAREN LEHEN UNEETAN BEREZIKI, NORBERAK AHAL IZAN ZUEN MODUAN EGIN ZION AURRE KRISIARI

ren aurrean zaugarritasun gehien erakutsi duten sektoreetara iritsi dira lehenengo txertaketak. Heldu bitartean, ordea, sarraskia bereziki gogorra izan da adinekoen artean. Aguraingo Sallurtegi Zahar Etxeko erizain laguntzaile Rebecka Gonzalez de Alaizak bizipen gogorak izan ditu bertan. "Lankideen artean noizbait komentatu dugu. Egoiliarrek garai latzak bizi behar izan zituzten gaztaroan, eta, orain, berriz, pandemia hau jasan behar izan dute".

Agintariak bereziki krisiaren hasieran erakutsitako portaera ez du begi onez ikusi erizainak. "Oso haserre nengoen, erabakiak hartu zituztelako gu eta egoiliarrek kontuan hartu gabe. Eguneko zentroa itxi zuten. Ahal moduan moldatu ginen espazioa eraldatzen eta altzariak kentzen, behar izanez gero beste ohe batzuk jarri ahal izateko. Hasieran, NBEak [norbera babesteko ekipamendua] falta ziren, eta musukoarena barregarria izan zen, negar ez egitearren. Bost egunez jarraian erabiltzeko ematen zizkiguten". Pixkana materiala iritsi zen arren, kutsatzeak eta ondorengo isolamenduak atazak biderkatu zituen.

Egoera guztientzako latza izan arren, Gonzalez de Alaizak bereziki gogoan ditu psikogeria-

triako pazienteak, askotan bizi-tzen ari ziren egoeraz jakitun izateko gai ere ez zirelako.

Unerik gogorrena, beharbada, Covid-19ak kutsatutako egoiliarrek Zadorra erresidentziara eraman zutenekoa izan zen. "Egun batetik bestera, lanera joan eta plantilla osoa negarrez topatu nuen". Horren arrazoia izan zen agintariak gaitzak jokatuko adineko guztiak Zadorran biltzea erabaki zutela. Autobus batean sartu eta bertara eraman zituzten. "Oso gogorra izan zen, uste genuelako Agurainen bertan ondo zaintzeko aukera bagenuela".

Denborarekin, Gonzalez de Alaiza ere Zadorrara eraman zuten, bertako egoiliarrek artatzeko. "Bertan ere egoera oso zaila izan zen. Gehienek ez zuten elkar ezagutzen. Gainera, lehen egunetan gela bakoitzeko hiru paziente sartu nahi zituzten, baina langileek ezetz esan zuten, eta bakoitzeko bi egotea lortu zuten". Ekarririk oheak ere hala moduzkoak izan ziren. "Arkautiko akademiatik ekarriak ziren, baxuak, artikulatu ezin diren horietakoak". Modu batean edo bestean, eskura zeuzkaten bitartekoekin, egoiliarrek ahalik eta ondoen egon zitezela saiatu ziren zaintzaileak. "Energia xurgatze handia jasan genuen. Baina, hala eta guztiz ere, lantalde bikaina izan da", nabarmendu du erizainak.

Dominak eta ondorioak

Egindako lana, ordea, ez da beti aitortu behar bezala, Gonzalez de Alaizaren aburuz. Gogorazi duenez, heriotzen kopuruak Zadorra egoitzan gora egiten zuen heinean, lan karga jaitzi zen, eta bertan aritutako langile asko etxera bidali zituzten, egun batetik bestera. Larrialdi garaian ere, ekonomiaren logikak haren ibilbide zurruna jarraitzen du, albo ondorioei erreparatu gabe.

Halako testigantzak jasotzean, eta beharrezko distantziak mantenduta, ezinezkoa da ez oroitzeko Txernobylen unerik gogorrean aritu ziren likidatzaile horietaz. Munstroaren kontra lehen leerroan aritu ziren, eta, ordainean, domina bat jaso zuten. Ondoren jaso zutena ere ezaguna da. Gure likidatzaileek txaloen domina jaso dute jada, baina munstroaren oroimena erraizetan eraman-go dute, bizitza osorako. ■

Astebururo pintxo eta razioetatz beteriko giro ederra!



AGURAINGO
HERRIKO TABERNA



Senda Langarica 4 - bajo
Salvatierra - Agurain - Alava
T. 640 750 617 - 945 562 956
www.ahestetica.es
ahestetica@gmail.com



Bultza euskaltegiak!
euskara! **aek**



Gune itxietan pilaketak ekiditea funtsezkoa izan da. S. PEREZ DE MUNIAIN

MASAJES

LAURA

Laura López-Quintana
Gorputz erlaxatua - gorputz osasuntsua

- **Kiromasaje**
[Quiromasaje]
- **Drainatze linfatikoa**
[Drenaje linfático]
- **Masaje lasaigarri eta deskontrakturatzailea**
[Masaje relajante y descontracturante]

AGURAIN (ARABA) 696 007 062 Naturopata znb: 4092



Saioa Urteaga
Irakaslea
(Araia)

Krisiaren inguruan informazio falta egon dela nabarmendu du Asparreneko haurreskolako irakasleak. "Ez dugu nabaritu hedabideetan gauzak ondo azaltzen zirenik". Pandemia aipatuta, beldurra, ezjakintasuna edota egonkortasun falta dira burura datozkion ideak. "Egon diren debekuak askotan zentzugabekoak izan dira. Une batean gauza bat esan, eta, handik gutxira, kontrakoa". Irakaslearen arabera, erabaki horien atzean arrazoiak egon daitezke, baina agintariek ez dute jakin ondo azaltzen.

Harremani dagokienez, Sakanarekiko egon den etena aipatu du. "Kontuan izan kudeaketak eta abarrekoak egiteko, gure erreferentziak Agurain eta Altsasu direla". Lanean, guraso askok arazo ekonomikoak izan dituztela nabarmendu du, eta horrek ere isla izan du haurreskolan. Bestetik, haurren defentsan atera da. "Batez ere hasieran leporatzen zitzairen kutsatze foku izatea, baina gero agerian geratu da ez dela hala izan. Egoera ondo kudeatuta, gauzak ondo atera daitezkeen seinale izan da hori".



Juanjo Lekuona
Erretiratua
(Ezkerekotxa)

Konfinamendua ez zen nobedade bat izan erretiroan dagoen apaizarentzat. "Hiruzpalau urte izango dira jada autoa gidatzen ez dudala, eta, autobusak iristen ez diren herri txiki batean egonda, praktikan beti konfinatuta nago". Baina egoera berriak harremanak asko zaildu dituela onartu du. "Jendearekiko kontaktu hori funtsezkoa da; biltzea edota nola dauden jakitea". Birusari berari baino, depresioari beldurra diola aitortu du. "Egoerak ekarri du jende asko depresioan egotea. Ilusio

eta itxaropenik gabe geratzen dira. Triste daude, aterabiderik ikusten ez dutelako, eta batzuk, gainera, modu kronikoan daude egoera horretan. Horrek ikara ematen du". Bestalde, pandemiak gizartean gauzak aldatuko zituen itxaropena zuen hasieran. "Baina badirudi aurreko egoerara bueltatuko garela. Gehiegizko kontsumoa, turismoa barra-barra, zarrastelkeria... badirudi tamalez horietara lotuta gaudela. Eta zinez, pena bat da, planetak ezin izango diolako martxa honi eutsi".



Iune Trecet
Kazetaria
(Araia)

Donostiarra jaiotzez, Araian bizi da kazetaria, eta Altsasun lan egiten du. Beraz, mugikortasunari lotutako murrizketak gertutik nozitu ditu. "Ez dut izan Donostiara joateko modurik, eta horregatik, familiarik urrun egon naiz. Hori nahiko gogorra egin zait", aitortu du. Bikotekidea etxean egonda, berriz, egoera arinagoa egin zaio. Arlo profesionalean, telelanean buru-belarri murgildu den horietako bat da Trecet. Sakanako *Guaixe* hedabidean lan egiten du, eta hasieratik formula honi ekin zioten. "Lehen momentuetan zaila


izan zen, baina orain, behin ohituta, oso ondo moldatzen naiz, askoz errazagoa da eta". Haurrak dituzten beste lankideei, berriz, zailago egin zaie. Faltan bota du, halere, zuzeneko kontaktua, eta astean zehar egiten dituzten hiru bideokonferentziakin hutsune hori betetzen saiatzen dira. Nafarroara joan behar izan denean, inoiz ez dute gelditu errepideko kontrol batean, kontrako noranzkoan aurkitu dituelako. "Baina, lanera joan arren, inoiz ezin duzu kendu zerbait txarra egiten ari zaren sentsazio hori".

Araia

Elizalde Kalea 1

Telf: 620653106

Ander Karasatorre



CARNICERÍA • HARATEGIA • CHARCUTERÍA • URDAITEGIA



Amaia Ordoño Larrea
Ikastetxeko langilea
(Zalduondo)

Baserri batean bizi da Ordoño Larrea, eta, horregatik, berak ere maila pertsonalean nahiko modu lasaian bizi zuen krisiaren hasiera. "Hau oso desberdina da Gasteizen bizi direnekin alderatuz. Gutxienez, inguruetan lasai ateratzeko moduan egon gara". Umeekin eta senitartekoekin harremanak sendotzeko garaiak izan ziren. "Tira, baita pazientzia lantzekoak ere!". Baina guztiek ez dute zorte berdina izan. "Argi dago egoera oso bortitza izan dela. Adibidez, gure amamak 90 urte ditu, eta ia urtebete

eman du etxetik atera ezinik. Beldur askorekin ibili da, gerra garaiak gogoan". Ikastetxean, berriz, gogorra egin zaio umeak egun osoan maskara ipinita ikustea. "Kalean ikusten dituzu eta ez dituzu ezta ezagutu ere". Lehen txertoa jarri eta bost egunera mintzatu da Lautadako ALEArekin. "Etenak erdian harrapatu nau, eta zabaltzen ari den informazioarekin pixka bat kezkatuta nago, noski. Baina txertatzea da egoerari aurre egiteko egin daitekeen gauza bakarra, eta konpromiso sozial hori bete nahi dut".



Aitor Ruiz de Luzuriaga
Kirol teknikaria (Araia)

Mundua nolabait gelditu izana ondo etorri zaio kirol arloko psikologoari. "Gauzak beste perspektiba batetik bizitzeko aukera izan dut, bederen. Abiadura handiko bizitzan murgilduta geunden, eskaeraz beteriko jardunetan, eta estresak askotan gure gaitasunak gaintzen zituen". Konfinamenduak, bederen, ondoan zuena gehiago baloratzeko beta eman zion. "Egia esanda, osasun neurriak betetzeaz gain, norberak ezer gutxi egin ahal zuen krisi honetan". Dena ez da izan lasaitasuna, noski. Izan ere,

senitarteko bati ebakuntza garrantzitsu bat atzeratu zioten. "Zorionez, dena ondo atera zen". Kirolaren alorrean, berriz, krisia asko nabaritu dute. Hainbat hilabetez ABLEan egon dira, eta etorkizuna ez dute batere argi ikusten. Are gehiago, berriro martxan hasi direnean pandemiari loturiko murrizketek etenak eragin dituzte, eta horrek lotura zuzena izan du diru laguntzetan eta lan baldintzetan. "Orain zalantza da 2021. urtea nola bukatuko dugun, ziurgabetasun asko dagoelako".



Maitena Perez Saez de Asteasu
Ostalaria (Agurain)

Jose Mari *El Gordo* jatetxeko ostalariarentzat krisiaren hasiera benetako *shock* bat izan zen. "Pentsatzen genuen hamabost eguneko kontua izango zela, eta begira oraindik nola gauden". Unean bertan zentratzea izan da egoerari aurre egiteko jarraitu duen estrategia. "Iraganean eta etorkizunean asko pentsatu gabe, eta hilabetez hilabete edota astez aste gauzei heltzea". Oso modu latzean bizitzen ari da krisia, baina herriko jendearen partetik jaso duen babesa azpimarratu du. Jatetxean eramateko

janaria prestatzeari ekin zioten, nolabait aurrera egiteko. "Lokala gurea denez, dena ordainduta genuen, ez genuen zor ezta *Coca Cola* bat ere. Alde horretatik, lasai lo egiten genuen. Baina ez dakigu noiz arte jasango dugun. Langileekin ABLEekin moldatu behar izan dugu, inor kaleratu gabe eta lanaldiak murriztu gabe. Baina ama eta biok urtebete daramagu soldata bat jaso gabe". Agintariek jarraitutako neurriekin oso haserre dago ostalaria, merkataritza txikian triskantza handia eragin dutelako.

 **EROSKI** city

ALEGRIA-DULANTZI

C/ Gasteizbidea 4 / Tlf. 945 42 00 05



PATXI OTAMENDI
IRAKURZALEA

Istorio biziak zukutzen

Aguraingo Olbea euskara taldea sortzean lehenengo unetik zirudien ez zela talde estandarra izango, baizik irtengo zitzaizkion kimuak onartuko zituela. Isilean ernatze-zain balego bezala loretxo bat suspertu zen. Apaltasunez baina urtez urte iraunkor dirauen loretxo hori Literatur Txokoa taldea da. Kopuru txikiko talde neurria duela ez zaio bizitasunik falta.

Nahiz eta Olbearen hasierako talde eredu nagusia euskarari buruzko bilerak, ekinbideak eta helburuak lantzea izan, iturri aberasgarri batera joatea agendan sartzen hasi zen. Iturburu erakargarri suertatu zaio taldeari literatura barrutira hurbiltzea. Asko pentsatu gabe leiho horretatik begiratzeari ekin zitzaion. Eta ausardi inozentez lagunartean istorioak partekatzeak hizkuntza bera gozatzea zekarkigun. Ongi moldatzen baitzen taldekideek bere barnean daramaten helburu batekin: euskara bera Aguraingo euskaltzaleek partekatzean oinarritzko atsegin-bide suertatzea. Euskara bultzatzen den aldi berean hizkuntzaren lore-bilaketan jardutea.

ITURBURU ERAKARGARRI SUERTATU ZAIGU LITERATURARA HURBILTZEA

Olbea berba bereziki aguraindarra da jatorrian zein egungo erabileran: S. Joan plaza inguratzen duten etxe-azpiko pasabideak antzina solas gune eta aterpe gisa erabiliak ziren. Oraindik ere gaineko sabaia zurezko edo oholezko direlarik, behean berriketan eta tratuan zirenak ohol-behean sentitzen ziren.

Literatur Txokoa irakurtzeko aukeratzaren diren fikzio liburuak egungo euskal idazleek azken bost-sei urtetan plazaratutakoak dira. Urtean zehar lau-bost liburu, idazle desberdinenak eta azken bost urtetan argitaratutakoak.

Nobelagintzaz esaten da bi nobela mota daudela: bizitza ahazten laguntzen digutenak eta bizitza hobeki ulertzeko suertatzen zaizkigunak. Bi ondorio horiek biltzen dira irakurle bakoitzari testuak utzi dizkion arrastoak taldean partekatzen direnean. Testu berak sentimendu desberdinak altxatu dituela eta, elkarrekin hizketatzean onargarri dakusagu bati ametsak koloreztatzen dizkion bitartean pasarte berberak besteari zer pentsa eman diola. Hortik tiraka, narrazio bakoitzari ematen zaizkion komentarioetatik nobelaren gaiak ateratzen dira. Fikziozko literaturan gehiago derizkiogu bizitzaren ahuleziak eta asmo lortu gabeak eskaintzen zaizkigula, bizitzaren zati sendo eta irmoak baino. Literaturaren eginkizuna zubiak eskaintzea ere badela... testua irakurri ostean ibili genezaken zein bide otu zaigun hausnartzen dugu. Liburuek lehendabizi sentitzera garamatzate, eta horren ondotik pentsatzera. Asko pentsatzeak zauriak ere sortzen dituzenez, noizik eta behin berriro narrazio ederretara itzuli behar. ■



OIHANE PEREA
BERTSOLARIA

Etorkizuna kantari

Aspaldi hasi zen bertso mugimendua Agurainen. 1997 urtea izango zen guztia abiatu zen garaia. Hasierako pausu horiek Aguraingo euskaltzaleen ekimenez eman ziren eta bertso eskola horietako kideek zeresana eman zuten. Maiteder Sasieta aguraindarrak bigarren saria lortu zuen 2000 urtean 14 urtetik 18ra bitarteko sailean eta Manex Agirre aramaioarrarekin batera Arabako ordezkari izan zen EHko eskolartekoan.

Bertsolaritza Gasteiztik herrialde osora zabaltzen hasi zen garaitik dago Lautada bertso mapan, bere erritmora baino aurrera beti. Eta Arabako helduen txapelketako lau txapel eta taldekako bat lautadan geratu dira.

Bertsolaritza eskolan lantzeko lehen urratsak ere aspaldi hasi ziren. Lope de Larrea ikastolan lehendabizi eta inguruko ikastetxeetan berehala. Geroztik eskualdeko guztietan lantzen da, tokiko erakunde eta ikastetxeen ahaleginari esker. Balorazio bikaina egiten dute parte-hartzaile eta familiek, eta euskararentzat eta euskal kulturarentzat hauspo garrantzitsua izan da beti.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan urritik maiatzera hamabostean behin ematen da, eta Bigarren Hezkuntzan tailer labur eran udaberrian. Bertsozale Elkartea berrikuntza pedagogikoan murgilduta dago, bat-batekotasuna eta gozamina erdigunean.

GUZTIEN PIZGARRI, ZAILTASUNEN GAINETIK ATE JOKA DITUGU UDABERRIKO HITZORDU NAGUSIAK

Eskolako urratsetan sakontzeko, eskualdeko bertso eskoletan ematen dute izena. Familia bertsozaleen toki kuttuna izan da bertso eskola, eta une honetan euskaltegiko beheko solairuan du egoitza.

2010ean urrezko aroa ezagutu zuen 4BE bertso eskolak, herri mailan oso aktiboa zen gazte talde sendoa eta Jotafa# txarangaren indarrari esker. Guraso eta seme-alabekin sortutako famili bertso eskola eta gazte txoro haiek Kuadrillartekoan parte hartu eta txapela etxera ekarri zutenean lehertu zen.

Une honetan urak bareago badaude ere, putzuak geratu dira nonahi. Urtero bi talde izaten dira Kuadrillartekoan Agurain eta Zalduondo ordezkatzuz, eta banakakoan ere bost bertsolarik parte hartu izan dugu bi urtez behin.

Hiru bertso gune daude eskualdean: Araia, Agurain eta Zalduondon. 25 bat ikasle ibiltzen dira astero bost taldetan. Markel Yoller, Oier Arbina eta ni neu gabilta irakasle lanetan eta ateak zabalik daude interesa duen ororentzat.

Guztien pizgarri, zailtasunen gainetik ate joka ditugu udaberriko hitzordu nagusiak, apirilean Binakako Bertsolari Txapelketa izango da, eta maiatzean haurren Eskolarteko Bertso Txapelketa eta Bertsoa Bizi Gazte lehiaketa.

Hitzordu garrantzitsuak ditugu agendan gorritz borobiltzeko: maiatzaren 15ean BBG lehiaketako gazteen finala Agurainen, eta maiatzaren 28an Araian Eskolarteko 14 urtetik beherako eskualdeko topaketa. Lautadako etorkizuna kantari entzuteko aukera izango dugu. Gozatu. ■



on line

maileguak

**Abian jarri zure
proiektuak klik
bakarrarekin.**

**Zurekin
gaituzu**



**Mugikorreko Online Banka
App-a**



kutxabank





Iñaki Garcia EVEko teknikariak eskainitako energia kontsumo jasangarriari buruzko tailerra. VITAL FUNDAZIOA

Lautada, gero eta berdeago

Azken urteetako legediek udalak jasangarriagoak bilakatzen behartzen dituzte, baina eginkizun horretan bizilagunen laguntza ere beharrezkoa dute, eta horregatik hainbat ekimen jarri da martxan guztion artean planetan uzten ari garen aztarna leuntzeko.

Naiara Lopez de Uralde BURGUE

2019ko otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legean ezarritako xedeak lortzeko asmoz, Lautadako udalek euren Energia Planak abian jarri dituzte, udalerrri mailan energia-baliabideak aurrezteko edota eraginkortasunez erabiltzeko neurriak ezartzeko helburuarekin. Izan ere, gehienetan administrazio publikoen aurrekontuaren zati handi bat energia gastuei aurre egiteko bideratzen da, eta horregatik, beharrezkoa da kontsumo horiek murrizteko modu eraginkorragoak garatzea.

Kuadrilla mailan, energia plana garatu duen lehen udala Bur-

gukoak izan da. Iazko maiatzean aurkeztu zuen proiektua, eta bertan azpiegitura publikoaren energia kontsumoa eta gastua zein den aztertu ez ezik, datozen urteetan udalerrri jasangarriago izateko hartuko dituzten neurriak ere zehaztu dituzte. "Gure kontsumoa aztertzerakoan, orokorrean energia baliabideak xahutzen ez ditugula ondorioztatuz dezaiegun, izan ere, udal azpiegitura guztiak berriak dira edota biomasa erabiliz berotzen dira. Dena dela, egitasmo honek oraindik ere jasangarriagoak izaten lagunduko gaitu", nabarmendu du Hodei del Holmok, Burguko Ingurumen Zerbitzuko teknikariak.

Energia plan honetan ezarritakoaren arabera, besteak beste, eraikin publikoetan eguzki energia fotovoltaikoaren instalazioa, eguzki sistema bidezko argiteria publikoa jartzea, pobrezia energetikoaren arazoa gizarte zerbiltzuekin batera lantzea, edota biztanleen artean mugikortasun jasangarria bultzatuko dute. "Gainera, biztanleek ere euren etxeetan energia nola aurreztu

"LORATEGIETAN ZER EGIN JAKITEKO EREDU IZAN NAHI DU BIOLORTUK"

HODEI DEL OLMO, INGURUMEN TEKNIKARIA

dezaketan edota argiaren faktura nola irakurri behar duten irakatsi nahi diegu".

Jasangarritasunaren eredu

Oraindik ingurumenaren alorrean lan handia egiteko duen arren, 600 biztanle inguru dituen udalerrri hau jasangarritasunaren eredutzat har dezakegu. Berrezko Ingurumen Saila dute udalean, eta Del Holmok 2012. urteaz geroztik daroma teknikari moduan lanean. "XX. mendeko azken urteetan izandako eraikuntzaren susperraldia dela eta, udalerrri honen biztanle kopuruak gora egin zuen nabarmen, eta Nati Lopez de Munain udalburuak azkar ikusi zuen ingurugiroarekin zerikusia zuten jardueren arduratuko zen pertsona baten beharra zegoela", azaldu du teknikariak. Harrezkero naturarekin harremana duten proiektu asko jarri dituzte martxan.

Horietatik garrantzitsuenetako bat Biolortu baratze ekologikoa da. Proiektu didaktiko hau duela hamar urte jarri zuten martxan, eta jasangarritasuna, ingurunearekiko errespetua eta ekologia dira ardatz bertan. "Baratzeazintzaz eta lorezaintzaz gozatzeko leku irekia da. Baratze ekologikoa, udalerririko bizilagunek landatutako zuhaiztiak eta fruta-arbolak dituen gunea, landare usaintsuak, sendabelarrak eta bestelako loreak dituen lorategi txikia, urmaela, oilategi komunitarioa edota konposta egiteko gunea ditu", argitu du del Holmok. "Bizilagunentzat topagunea edota euren etxeko lorategietan egin dezaketenen eredu izateko jaio zen, eta horregatik hainbat tailer edota ikastaro egin ditugu bertan, baratzak landatzeko, zuhaitzak kimatzeko edota urmaelak nola egiten diren erakusteko".

Hori gutxi balitz, Burgu Araba mailan auzo-konposta bultzatu zuen lehenetako bat izan zen, eta ekintzailatza agroekologikoaren alde ere egiten du Biohazi ekimenaren bidez. "Tokiko ekoizpena zein ekologikoa sustatu nahi dugu, eta horretarako Añuan 1.000m²-tako bi lursail ditugu. Lau urtetik behin hantxe garatu daitezkeen proiektuak aurkeztu dira, eta momentu honetan Argomaizeko neska bat horietako lursail bat lantzen ari da, eta bestea Trokonizeko

eskolako ikasleek erabiltzen dute ekoiztutako produktuekin kontsumo otarrak prestatzeko", dio teknikariak.

Guztion ardura

Baina jasangarritasunaren alde egitearena ez da udalen kontua bakarrik, Lautadako biztanleen artean ere ingurumenarekiko ardura nabarmen areagotu egin baita azken urteetan. Klima-aldaketa, atmosferaren kutsadura, uraren erabilera okerra, hondakinen kudeaketa edota energia-fosilen menpekotasuna bezalako gaiek gure udalerrietako bizilagunen artean gero eta kezka handiagoa sortzen dute.

Hori ikusita, Vital Fundazioak *Etxe Berdeak* izeneko ekimena lurralde osoan abiatuko du, euren eguneroko erabaki, ohi-turak eta jokabideak ingurunean eta gizartean duten eraginaz arduratzen diren herrietako familiek ere bertan esku hartzeko. "Heziketa-programa hau 2015etik dago martxan Gasteizen, eta duela bi urte ekimen honen lehen saiakera Legutio egin genuen hirian bizi ez den jendeak nola hartzen zuen ikusteko. Emaizta oso positiboa izan zenez, aurtengoan lurraldeko Kuadrilla guztiei zabaltzea erabaki dugu", azaldu du Mikel Perezek, Vital Fundazioko Teknikariak. Hala, orotara 120 familiak hartuko dute parte aurtan, eta horietatik 25 Lautadakoak izango dira.

Egitasmoan zehar euren eguneroko bizitzan ingurumenarekiko arduratsuagoak diren jarrerak sinpleak aurkeztuko zaizkie, hala nola energia-baliabideak hobeto kudeatzen eta aurrezten. "Maiatzetik abendura bitartean egongo gara familiekin lanean, eta horiek momentu oro izango dute profesional baten aholkularitza", esan du Maite Bravok, Atari Aholkularitzako kideak eta programa honen koordinatzaileak.

Bravoren esanetan, lehen esperientzia pilotu hau hiru ediziotan egiteko pentsatuta dago: lehenengo urtean parte-hartzaileek ur eta energia kopurua aurrezteko zein hondakinak behar bezala kudeatzeko erronkari aurre egin beharko diote; eta datorren urtean esperientzia aurrera egin nahi dutenei kontsumitzeko modu adeitsuagoak irakatsiko zaizkie. Eta azkenik, beste urte batez jarraitu nahi



Apaintzeko landareak eta nekazaritza ekologikoa lantzen dira Biolortun. BURGUKO U.



Biohazi lursailak ekintzailatza agroekologikoa sustatzen du. BURGUKO UDALA



'Etxe berdeak' programa kuadrilla guztietara zabalduko dute. VITAL FUNDAZIOA

dutenekin tailerrak eta jardue-
ra praktikoak egingo dira au-
rreko edizioetan jorratutako
gaietan sakontzeko.

"Herri txikietan bizimodu ja-
sangarriagoa dugula pentsatu
dezakegun arren, gure egune-
rokotasunak ingurumenean era-
giten jarraitzen du emisioak,
isuriak eta hondakinak sortzen
jarraitzen dugulako", dio koor-
dinatzaileak. "Hortaz, maila ba-

tean edo bestean, gu ere kli-
ma-aldaketa honen eragileak
garen kontzientzia zabaldu nahi
dugu", azaldu du Bravok.

"KLIMA ALDAKETAREN ERAGILE GARELA JAKIN BEHAR DUGU"

MAITE BRAVO, ATARI AHOLKULARITZA

Parte-hartzaileei beren etxee-
tan lortu beharreko zenbait
erronka planteatuko zaie, eta
gero, energia edota uraren kon-
sumoan benetan aurreztu duten
jakiteko urte bateko faktura
beste urtekoarekin konparatuko
da. "Ezarritako erronka edo hel-
buru horiek guztiak lortzeko
hainbat material jasoko dute
parte-hartzaileek: kontsumo txi-
kiko bonbilla, dutxa-emaria mu-
rrizteko gailua, entxufeen eten-
gailudun erregeta, nekazaritza
eta abeltzaintza ekologikoko
zein bidezko merkataritzako
produktuak,... Gainera, euren
sortutako karbono-aztarna neur-
tzeko baliabideak ere eskainiko
zaizkie".

Erronkaz erronka

Era berean, landutako gaiekin
zerikusia duten leku interesga-
rrietara bisitaldiak egitea ere
aurreikusitako dute. "Pandemia ho-
nek uzten bagaitu, Jundizeko
industrialdean dagoen Biokon-
post instalazioetara joan nahiko
genuke, Vidrala beira-fabrikara,
Sobronen dagoen ur-museora
edota komunitateko-konpostatzea
egiten den herri batera".

Interesa duten familiek apiri-
laren 22ra arte izango dute ize-
na-emateko aukera www.fundacionvital.eus
webgunean, edo 945-77 68 58 telefonoaren bidez.
"Dagoeneko Lautadan bederlatzi
famiak eman dute izena, baina
leku guztiak betetzea espero
dugu", esan du Perezek. "Lau-
tadako famiak egitasmoan parte
hartzera animatu nahi ditut,
izan ere, jasangarritasunaren
arloan gauza ugari ikasi ez ezik,
famiako kide guztiei zuzendu-
tako ekintza da". "Bai, gainera
asko ikasteaz gain, teknikari
eta parte-hartzaileen artean oso
harreman estua sortzen da, eta
orokorrean oso emaitza positi-
boak ateratzen dira hemendik",
gaineratu du Bravok.

Proiektua bukatzean, antola-
kuntzatik itxiera-jardunaldia
egitea aurreikusitako dute, eta ber-
tan, besteak beste, maila oroko-
rean zein kuadrilla bakoitzean
lortutako emaitzak plazaratzeko
asmoa dute. Era berean, Kua-
drillako Ingurugiro Departam-
entuarekin bat, informazio-hi-
tzaldi irekiak egingo dituzte urte
osoan zehar, nahi duen orok
parte har dezan. "Izan ere, Lau-
tada berdeagoa bihurtzearena
guztion ardura izan behar da",
aipatu du Bravok.

orekan
fisioterapia

Bentatxo, 2 - Bajo
01200 Salvatierra-Agurain

IXONE
RIBAGUDA
Fisioterapeuta Col. 1897
680 336 191
ixone@orekanfisioterapia.com

AUTOSPA SENDOA
AGURAIN

**IBILGAILUAK ESKUZ GARBITZEKO ETA
DESINFECTATZEKO TAILERRA**

623 039 640

Urzabal kalea 7 (San Martin auzoa)
AGURAIN

**KOTXEA JASO ETA ITZULTZEKO ZERBITZUA
LAUTADA OSOTIK**



Diputazioaren aurreikuspenen arabera, autobus linea berriak datorren urtean abiaraziko dira. ALEA

Itxi dute garraio publikoa hobetzeko akordioa

Garraio Publikoaren aldeko Lautadako Plataformak salatu du komunikabideen bidez jaso duela horren berri, eta iragarri du idatzi bat aurkeztuko duela Aguraingo Udalean hitzarmenaren nondik norakoak zehetasun gehiagorekin ezagutzeko.

Erredakzioa AGURAIN

Azkenean, Arabako Diputazioak bere gain hartu ahal izango du Agurain eta Gasteiz arteko autobusaren kudeaketa. Gainera, Nafarroako Gobernuak laster aterako duen Iruñea-Gasteiz linearako emakidaren lizitazio agirietan bi udalerrri horien trafikoa debekatuko du, Araba-

ko Aldundiak Alavabuseko 5. linean sar dezan. Erabaki horiek martxoaren erdialdean Arabako Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak itxitako hitzarmenaren barruan daude.

Emakidak datozen hilabetetan lizitaziora ateratzeko asmoa dute bi gobernuak. Beraz, ohiko epeak betetzen badira, linea

berriak 2022. urtean abiaraziko dira. Arabako Aldundiak orduntxe hartuko du bere gain Agurain eta Gasteiz arteko trafikoko zerbitzua.

Garraio Publikoaren aldeko Lautadako Plataformatik azaldu dute oraingoz duten "informazio bakarra" dela komunikabideetan agertu dena, eta,

hortaz, Aguraingo Udalean idatzi bat aurkeztuko dutela laster, horren inguruan informazio gehiago eskatzeko.

Emaitzarik gabe

Plataformako kide Gotzon Lopezek azpimarratu nahi izan du herritarrek "berdin" jarraitzen dutela: "Hitz onak bai, baina emaitzarik oraingoz ez dago. Beraz, Udaletik informazio gehiago jaso eta emaitza ikusi bitartean, ezin dugu hitzarmenaren balorazio bat egin; baina egitekotan negatiboa egingo genuke, gure eguneroko bizitzan ez duelako oraindik inongo eraginik izan", adierazi du. Gogorarazi du, halaber, goizetan Gasteiz eta Agurain lotzen dituen autobus bakarra izaten jarraitzen dutela; hain justu ere, 07:00etan Lautadako herritik ateratzen dena.

Horrekin lotuta, plataformako ordezkariak galdetu du non dauden Arabako Foru Aldundiak Aguraingo Udalari iragarritako 80.000 euroak, Nafarroako Gobernuarekin autobusen maiztasuna handitzea adostu dezan, Aldundiak bere gain hartu bitartean: "Ez dakigu non dagoen diru kopuru hori. Suposatzen dugu Aguraingo Udalak jaso egin duela dirua, baina ez dakigu zer egingo duten horrekin. Hemen ez da inongo neurririk hartu eta ez da horren inguruan ezertxo ere esan", jakinarazi du Lopezek.

Garraio Publikoaren aldeko Lautadako Plataforma ez da azalpenak eskatu duen bakarra. Aguraingo EH Bildu taldeak ere egoera argitu dezala eskatu dio udal gobernuari, "Aguraingo garraio publikoaren kudeaketaren inguruko informazioa prentsan ikusi ondoren". Besteak beste, "arazoa" zer baldintzatan negoziatzen ari den eta Gasteiz eta Agurain arteko joan-etorrien maiztasunak zenbat handituko diren.

Iruñea-Gasteiz, Nafarroarentzat

Beste alde batetik, Arabako Diputazioak eta Nafarroako Gobernuak itxitako hitzarmen berriak jasotzen du Iruñea-Gasteiz linea Nafarroaren esku geldituko dela, eta zerbitzu eskusiboa eskainiko diela, besteak beste, Irurtzun, Uhart-Arakil, Lakuntza, Etxarri-Aranaz, Urdiain, Altsasu eta Olazti herriei, eta baita Arabako hiriburuari ere. Kasu honetan, Arabako Aldundiak Iruñea eta Gasteiz arteko trafikoa debekatuko du Bilbo-Iruñea linearako emakidaren lizitazio dokumentuetan; baita aipatutako zazpi herri horien trafikoa ere.

PLATAFORMAK GALDETU DU NON DAUDEN ALDUNDIAK UDALARI EMANDAKO 80.000 EUROAK



Hiru talde, First Lego League txapelketara

Burguko Teknoklubak hiru talde osatu ditu First Lego League txapelketan parte hartzeko; guztira 17 ume eta gazte daude 'challenge' eta 'explorer' kategorietan. Maiatzaren 8an jokatuko dute nagusiek Euskadi mailako kanporaketa.

Estitxu Ugarte Lz. de Arkaute BURGUKO First Lego League (FLL) nazioarteko hezkuntza-programa bat da, gazteak zientzia, teknologia, ingeniari eta matematiketa-ra modu dibertigarrian hurbiltzeko. Urtero 110 herrialdeetako 6 eta 16 urte bitarteko 560.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute, eta arazoak gainditzeko ideiak garatu behar dituzte, teknologiaren bitartez. Koronabirusaren eraginez izen-emateak murriztu baldin badira ere, Burguko Teknoklubak aurreko urteetako mailari eutsi dio, eta bi talde aurkeztuko ditu liga nagusian, eta beste hirugarren talde bat, zazpi eta bederatzirentzako hurrekin, *explorer* kategorian.

Fidel Gomez Burguko Teknoklubeko arduradunak azaldu duenez, aurtengo txapelketan Arabatik soilik bi taldek parte hartuko dute: Bastida Ikastolak eta Burguko Teknoklubak. Iaz, berriz, zortzi talde izan ziren. "Pandemiarekin ez da erraza izan antolatzea, eta pena bat da, horrelako gauzek asko laguntzen dutelako umeak zientzian sartzen; gainera, gero eta neska gehiago ikusten genituen, baina koronabirusarekin pixka bat gelditu da dena", esan du.

Kirola, garraio publikoan

Replay da aurtengo erronkaren izena, eta jokatzeko, kirola egiteko eta mugitzeko modu berri-zaileak aurkeztera animatzen ditu taldeak FLLk. Larunbatero ari dira biltzen Burguko Teknoklubeko taldeak, Udalak laga dien Landederra kiroldegiko aretoetan. Talde nagusia proposamen bat garatzen ari da garraio publikoan kirola egiteko. "Trenetan bagoi-jatetxea dagoen bezala, bagoi-gimnasioa sortzea da asmoa", azaldu du Gomezek. Bigarren taldea mapa batean marrazten ari da ibilbide desberdinak eta denborak -urtugia-



Larunbatero biltzen dira burguarrak proiektua lantzeko. BURGUKO TEKNOKLUBA



Robotekin ariketa desberdinak egin behar dituzte gazteek. BURGUKO TEKNOKLUBA

ri buelta ari dira lantzen orain-. Halaber, robotekin egiteko ariketa desberdinak proposatu die parte-hartzaileei FLLk, eta horretan ere buru-belarri dabilta azken asteburuetan.

Esperientzia handia dute burguarrek, eta hori baliatuko dute aurtengo txapelketan sariren bat eramateko. "Taldea nagusian bost gazte daude, bost urterekin hasi ziren neskek eta orain hamahiru urte dituzte... gero eta

hobeto egiten dute; haien artean banatzen dute lana eta beren kabuz antolatzen dira. Sekulako hobekuntza egin dute".

Txapelketaren Euskadiko kanporaketa maiatzaren 8an jokatu dute. Ondoren etorriko dira Espainiako eta mundu mailako txapelketak, baina horiek oraindik zehazteke daude, pandemiak ezarritako murrizketen arabera formatua ere aldatu baitaiteke.

RAMBLA
KONPONKETAK



SAN MARTIN 6
TEL: 945 31 20 23
AGURAIN


ELEKTRIKARIAK



INSTALAZIO ELEKTRIKOAK, ETXekoAK ETA INDUSTRIALAK
BIOMUNTAILAK
SARE INFORMATIKOAK

Tel. 655 732 993 Iñigo piztusc@hotmail.com

Jausketa, 5
ORDOÑANA (ARABA)



Kale nagusia 29
01200 Agurain - Lautada



Emaillez?
info@tartekamedia.eus



Informazio gehiago
945561067

DISEINU
ESTUDIOA

ezagutu gure coworking-a

www.tartekamedia.eus



Araiako industria gunean eraikiko dituzte instalazio berriak, ezpalen biltegiaren inguruko lursailean. ALEA

Bio-hondakinak tratatu nahi dituzte Asparrenean

Asparreneko frakzio organikoa jaso eta tratatzeko 1.200 metro karratuko instalazio berri bat egiteko asmoa du Udalak, industria-gunean; Donemiliagako sortzaile handien bio-hondakinak biltzea ere aurreikusten du egitasmo berriak.

Mirian Biteri ARAIA

Asparrenean udalerrian bertan zein ondoko Donemiliagako sortzaile handiek sortutako bio-hondakinak konpostatzeko udal-instalazio bat diseinatzeko eta eraikitzeko proiektua du esku artean. 1.200 metro karratu izan-

go lituzkeen eraikina udalerriko industria-gunean egingo litzateke, udal-galdararako biomasa biltegia dagoen partzela berean. Gaur egun, zaborraren kudeaketa Lautadako Kuadrillak eramaten du. Hiri-hondakin solidoak kudeatzeko, lau hon-

dakin-zati bereizten dituen eredu bat erabiltzen da: ontzi arinak, papera eta kartoia, beira eta hondakinak. Azken horiek Jundizko tratamendu-instalaziora eramaten dira.

Egungo kudeaketaren inguruan, Asparreneko alkate Txelo

Auzmendik azpimarratu du udal bakoitzak erritmo eta sistema desberdinak dituela, eta Asparrenean aldatzeko unea dela ikusi dutela: "Asparrenaren kasuan, materia organikoa kudeatzeko konpostaje deszentralizatuan oinarritutako alternatibak bultzatzeko borondatea argia da", nabarmendu du.

Proiektua aurrera ateratzeko, 2018. urtean egin eta onartu zen bio-hondakinak kudeatzeko plan batean oinarritu izan da Udala: "Asparrenean bio-hondakinarekin konposta egiteko lan bat egin da, eta hainbat konposta komunitario; bi hegazti-konpostagailu komunitario izateaz gain, auto-konposta egiten duten hainbat pertsona ere badaude. Baina iritsi da dagoeneko aurrera egin ez zen unea, eta onartutako planaren arabera, urratsak egin jarraitu behar genuen", azaldu Auzmendik.

387.847 euro

Diru-laguntzak eskatzeko aukera aztertu eta pasa den ekainean aurkeztea erabaki zuten. Pozik daude egitasmoa martxan jartzeko lortutako kopuruarekin: "Guztira, 37.000 euro eman diz-

kigute ezarpenerako eta 200.000 euro tratamendu-instalaziorako", adierazi du Auzmendik. Gaineratu du egitasmoaren aurrekontu osoa 387.847 euro dela.

Egitasmo berri honen bidez, bio-hondakinak udalerritik kanpora eramatea saihestuko litzateke. Horiek garraiatzeko, bilketa desberdina diseinatu dute Araiako herrirako. Frakzio organikoa biltzeko 23 edukiontzi jarriko dira guztira; horietatik 15 hirigunean egongo dira. Parte hartuko duten etxebizitza adina kubo eta giltza ere behar dituzte; etxebizitza guztiak kontuan hartuta, 760 kubo eta giltza beharko lirateke. Asparreneko eta Donemiliagako bio-hondakinen sortzaile handiekin, berriz, atez ateko bilketa egitea da asmoa.

Iraulitako pilen sistema

Instalazioetara heltzean, hondakinak tratatu egingo lirateke, eta horretarako, iraulitako pilak konpostatzeko sistema bat planteatzen da. Aurreikusitakoaren arabera, aipatutako bi udalerritan bildutako bio-hondakinak 200 tona inguru dira urtean; hain zuzen ere, urtean 113 tona konpost sortuko lirateke.

Epeei dagokionez, Asparreneko alkateak nabarmendu du orain Sakanako eta inguruko bestelako instalazioak ezagutzen ari direla, eta proiektu teknikoaren esleipena ere esku artean dutela.

ARAIA HERRIKO FRAKZIO ORGANIKOA BILTZEKO 23 EDUKIONTZI JARRIKO DITUZTE

Hilabete luzeko greba ostean, akordioa lortu dute Ferrovialen

Enpresa greban zegoen otsailaren 3tik, eta funtzio logistikoak betetzen ari da Gasteizko Michelinentzat.

Erredakzioa ARAIA

Araiako Ferrovialeko langileek akordioa lortu dute, 37 eguneko grebaren ostean. ELAk lortutako akordioak 3.600 euro baino gehiagoko gehikuntzak jasotzen ditu bost urtean, eta, besteak beste, lanaldi osoko kontratu partzial guztien bihurketa (ordaindutako 14 ordu urtean, norberaren aukerako ordu), plusen hobekuntza, laugarren eta bosgarren taldeen ordainketa eta laneko bajak (horien maila edozein izanda ere) %100ean ordaintzea gainditzen du.

Gainera, ohiko bajen laugarren egunetik aurrera, behin-behineko langileak lan-poltsa batean sartuko dira, eta aldi baterako langileek Ferrovialeko langileen baldintza berberak izango dituzte. "Plantillak sindikatzen eta antolatzen badira, Michelin eta Ferrovial multinazional handiei aurre egin diezaiekete, hasiera batean ezinezkoak diruditen helburuak lortzeko", azpimarratu du ELA sindikatuak.

Otsailaren 3ean hasi zuten greba mugagabea, urtebete hitzarmenik gabe eman ondoren.



Ferrovial Araiako langileen mobilizazioa Michelinen fabrikaren aurrean. ELA SINDIKATUA

Axpuruko eguneko zentroa noiz irekiko zain

Arabako Diputazioaren aldetik, Barrundia, Donemiliaga, Zalduondo eta Asparreneko Gordoia eta Arriolako herritarrei zerbitzua emango dion eguneko zentroaren inguruko berririk gabe jarraitzen duela jakinarazi du Donemiliagako alkate Erika Letamendik.

Mirian Biteri DONEMILIAGA

Diputazioarekin hitzarmena sinatzeko zain jarraitzen dute Donemiliaga, Zalduondo, Barrundia eta Asparreneko Udalek, Axpuruko eguneko arretarako landa zentroa behingoz martxan jarri ahal izateko. Donemiliagako alkate Erika Letamendik azaldu du irailean Arabako Batzar Nagusietako Gizarte Zerbitzuen batzordean egon ostean, Foru Aldundiaren "berririk gabe" jarraitzen dutela, eta, hortaz, zerbitzu horren irekiera "inola-ko justifikaziorik gabe atzeratzea" leporatu dio.

Aspalditik datorren auzia da Axpuruko eguneko zentroarena. Letamendik gogorarazi du, 2017. urtean, Barrundiako Udalak txosten bat egin zuela eta ondorioztatu zuela Lautadan zeuden egungo zentroak bertako nagusientzako urrun gelditzen zirela eta inguruan eguneko zentro bat zabaltzeko beharra zegoela. "Diputazioarekin elkartu zen orduan eta foru erakundeari proiektu bideragarria izan zitekeela iruditu zitzaion", azpimarratu du Letamendik.

50.000 euroko obra

Axpuruko kontzejuak dirulaguntza bitartez berritutako basozainaren etxea kokapen "egoki-ena" izan zitekeela ikusi zuen gerora; kontzejua bera prest egongo litzateke eraikina zeregin horretarako lagatzera. 2019ko otsailean Diputazioko ordezkariak eraikina bisitatu zuten. "Eraikinak eta kokapenak sentazio atsegina sortu zien GOFeko eta Aldundiko ordezkariak; izan ere, zaharberitutako eraikinak berak ukitu txikiak behar zituen martxan jartzeko", azaldu zuen Asparreneko alkate Txelo Auzmendik irailean Batzar Nagusietan egindako agerraldian.

Hain justu ere, igogailua jarri, komun bat egokitu eta altzariak



Axpuruko basozainaren etxean jarri nahi dute eguneko zentroa. ERIKA LETAMENDI

EGUNEKO ZENTROA KUDEATZEKO HITZARMENIK EZ IZATEA ARGUDIATU DU DIPUTAZIOAK

erostea baino ez zen behar. Letamendik adierazi du horren gaineko proiektua eginda dagoela eta obra horiek egin ahal izateko aurrekontua 50.000 euro ingurukoa dela. "Hala ere, orduz geroztik Donemiliagako Udaltik egindako eskaera eta errekerimendu guztiak ukatu egin dira, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Udalak eguneko arreta zentro hori kudeatzeko sinatutako hitzarmenik ez dagoela argudiatuta", salatu du.

Zazpi erabiltzaile

Alkateak gaineratu du foru teknikariak ingurunean eguneko zentro baten beharrik ez dutela jakinarazi dietela, eta bertako udal ordezkariak ez daudela

horrekin ados. Horretarako, eguneko zentroa erabiltzeko interesa dutenenekin zerrenda bat egin dute: "Aurreikuspenen arabera, hamar plaza izango ditu eta dagoeneko zazpi erabiltzaile ditugu. Aurreko astean bilera bat izan genuen Diputazioan eta hori bera jakinarazi genion. Baina, oraindik ere, ez dakigu zer gertatuko den", aipatu du Letamendik. Dena dela, iragarri du proiektua aurrera ateratzeko beste bide bat bilatzen hasi direla: "Horretarako dirulaguntza eskatu dugu Jaurlaritzan".

Erakundeetan erabakiak hartzen ez diren bitartean, Barrundia, Donemiliaga, Zalduondo eta Asparreneko Gordoia eta Arriola herrietako bizilagunek zentroa martxan jartzeko zain jarraitzen dutela kritikatu du. Gaur egun, herri horietan 75 urtetik gorako 200 lagun inguru daude eta Dulantzi, Agurain eta Asparreneko zentroetara bideratzen dira.



Burgeluko Udala ingurumenaren, berdintasunaren eta euskararen alde lanean.

ZURE BAITAN DAGO KONPONBIDEA



Egoerak direna dira, ez besterik. Zuk aukera zenezake, ordea, haiek nola bizi.

Beste modu batera bizi nahi dituzula sentitzen baduzu, prest nago laguntzeko.

Nerea Nacenta

- 🧘 Yoga saiok (estudioan bertan edo online),
- 🧘 Bioneuroemozio kontsultak,
- 🧘 Ipuin terapeutiko pertsonalizatuak
- 🧘 Arnasketa tekniken tailerak.
- 🧘 Ahalduntze tailerak.

📱 @Zentro-Consciencia-y-bienestar 📞 607598070  Zentro
📷 @zentroconsciencia ✉ @nenacenta@gmail.com consciencia y bienestar




lautada ikastola

2 URTETIK 16 URTE ARTE

www.lautadaikastola.eus

Tlf: 945 300 215
(Agurain)

 **ikastolenkartea**

"Pandemiarekin jendeak artea berraurkitu du"

ANA DIAZ DE ESPADA LA CUADRA ERAKUSKETA ARETOA

Hamar urteko ibilbidea ospatu berri du Dulantziko La Cuadra erakusketa aretoa; Ana Diaz de Espada artistaren tailerra eta eskolak emateko gunea ere bada.

E.Ugarte Lz.de Arkaute DULANTZI

Dulantzin, bere aiton-amonek ukulua izan zuten tokian, erakusketa aretoa eta tailerra zabaldu zuen Ana Diaz de Espadak duela hamar urte. Disziplina anitzeko artista asko igaro dira bertatik, eta herriko dozenaka umek eta helduk marrazkigintzaren eta pinturaren lehen urratsak egin dituzte La Cuadran. **Harro sentitzeko moduko ibilbidea egin du La Cuadrak?**

Harro nago guztiaz. Hasieran, Dulantzira itzuli nintzenez, ez nuen arteen arloko ia inor ezagutzen hemen. Pintura beka baten ondoren, jende gehiago ezagutzen hasi nintzen, eta gero Getxoarten eta Ikas-Arten ere erakusketak egin nituen; hasieran lagunekin antolatzen nituen erakusketak, eta gero jendea bere dossierrekin etortzen hasi zen. Hilerok, urritik maiatzera, erakusketa bat antolatu dut.

Zer motatako erakusketak dira?

Mota guztietakoak. Hasieran, pintura gehiago ekarri nuen, esparru horretako jendearekin harreman handiagoa nuelako, baina gero marrazkia eta argazkia ere ekarri ditut. Miranda Ebroko neska batek egindako soineko bilduma bat ere erakutsi genuen; eta David Tavaresek eta Angel Luzuriagak erakusketa egin dute La Cuadran, Davidek buruhandiena eta Angelek argazkiak. Bakoitzak bere aldeetik egin du, baina hemen elkar-tu ziren eta The Zuzenders taldea sortu zuten euren asmoa musika zuzenean marraztea zelako. La Cuadran egin zuten aurreneko ikuskizuna; ikusleek aukeratzen zuten abestia eta haiek marrazten zuten, oso emandali polita izan zen.

Espazio irekia da La Cuadra?

Bai, horretan oso zorioneko naiz jendeari espazio hau uzten diodalako bere ideiak adieraz ditzan eta gauza daitezten. Beti pentsatu dut aldundiek, udalek



Ana Diaz de Espada, The Zuzenders taldeko Tavares eta Luzuriagarekin. A.D.

edo dirua kudeatzen dutenek zergatik ez duten kulturaren aldeko apustu hori egiten; izan ere, nik lehen eskutik dakit hori egitea oso gutxi kostatzen dela. **Erakundeen babesik izan al duzue zure proiektuan?**

Ezer ez. Nik nahiago dut instituzioak alde batera utzi, azkenean hegoak pixka bat mozten dizkituztelako. Zerbait ondo ateratzen bada, artistaren eta nire arteko kontua izango da, eta gaizki ateratzen bada berdin; nahiago dut erakundeekin ez lotu.

Tailerra ere espazio finkatua da. Zenbat ikasle dituzte?

Aurten uste nuen zailagoa izango zela, edukieraren murrizketak tartean daudelako, baina ikasle gehien dudak ikasturtea da. Alde batetik, jarduera gutxiago daudelako izango da, eta bestetik, berrogeialdiak ere ikusarazi duelako artea haurrak lasaitzen dituen zerbait dela, ekarpena egiten die eta asko erakusten die. Beraz, egun guztietan ditut klaseak; guztira hamaika talde dauzkat, eta gainera, aurten ere helduen taldea aterata da. Badirudi pandemiarekin jendeak kulturaren alderdi batzuk eta egiteko denborarik

ez zuten zaletasun batzuk berraurkitu dituela.

Etorkizuna du zurea bezalako galeria batek herri txiki batean?

Hau hilabetez hilabete doa. Ez naiz La Cuadran bizi, ekonomikoki ez da aurrera ateratzen nauena. Erakusketa-aretoetik ez dut etekin ekonomikorik ateratzen; artista askok obra oparitzen didate eta funts polita egiten ari naiz, baina helburua ez da erakusketa-areto bat izatetik bizitzea.

Aldaketarik duzu buruan?

Ez. Zentratua nago eskolak haur eta nagusientzat prestatzen, eta momentuz erakusketa-aretoa itxita dago pandemiagatik, ez dut arriskurik hartu nahi. Pena ematen dit ikasleek asko ikasten dutelako esposizioekin eta gustatzen zaidalako arte garaikidea ekartzea. Gabonetan beti erakusketa bat egiten dut eta hori da hurrengo helburua. Ikasturte honetan ezin bada, hurrengoan izango da.

Nolako harrera izan du La Cuadrak Dulantzin?

Oso ona. Erakusketen inaugurazio egunean jende asko pasatzen da, eta astegunetan eskola irekita dagoenean ere.



Zuntz optikoa jartzeko kableak eremu batean abandonatu dituzte. MENDIXUR.COM

Zuntz optikorik ez duela salatu du Mendixurrek web-orri berrian

Sinadurak bildu dituzte herrian Arabako Diputazioari 2019an agindutakoa betetzeko eskatuz.

Erredakzioa MENDIXUR

Mendixurreko Batzar Administratiboak www.mendixur.com web-orria sortu berri du, eta horretan jaso du internet konektorekin duten arazoa. Batzar Administratiboak gogoratu duenez, 2019ko abendurako Arabako herri guztietara zuntz optikoa iritsiko zela agindu zuen Diputazioak, baina herrian oraindik ez dute horren berririk izan. "Zuntz optikoa jartzeko tutuak eremu batean botata utzi dituzte", esan dute.

Gauzak horrela, duela hilabete batzuk herriko bizilagun ia

guztien sinadurak jaso eta Al-dundian aurkeztu zituzten, interneteko oinarritzko zerbitzu hori eskatzeko. Ez dute erantzun ofizialik jaso.

"1979ra arte ura ez zen Mendixurreko etxeetara iritsi. Ordurako Bilbo Handia eta Gasteiz Urribari Ganboa urtegiko urez hornitzen ziren. Urtegia 1958an inauguratu zuen Francok, eta haren ertzak gure herriraino iristen ziren. Interneterako konexio egokiaren atzerapena gure etxeetan ura izateko jasan behar izan genuena bezain luzea ez izatea espero dugu".


Bergara Centro Óptico
Aguraingo audiológia zentroa · Centro audiológico de Agurain



AURRETIKO HITZORDUA
OITA PREVIA

945 302 978
640 126 604

Martin Deuna kalea 6
01200 AGURAIN



'Magdalena penitente' izeneko horma-margoa berreskuratu du Arabako Foru Aldundiak. AFA

Lazarragako muralak, biziberritzeko bidean

'Magdalena penitente' izeneko XVI. mendeko horma-pintura Zaldudoko jauregian ikus daiteke azarotik. Zaharberrikuntza Zerbitzuak mural hori aukeratu du gainerako margoetan esku hartzen hasteko. Prozesu luzea izango da obra guztia berreskuratzeko.

E. Ugarte Lz. de Arkaute ZALDUONDO 1575 eta 1580 bitartean, Zaldudoko Lazarraga Jauregiko galeriaren hormak eta eskailera Errenazimentuko horma-pinturekin margotu zituzten. Ustez, Diego de Zegama pintorearen obra dira, Munainen pintoreen lantegi bat antolatu zuen artista gipuzkoarrarenak. Horietan Lazarraga eta Santa Cruz jauntxoan armariak jasotzen dira, Biblia eta Genesiaren irudiekin batera. Eszenak landaretzaz eta mota askotako animaliez inguratuta daude, hala nola elefanteak, katuak, erbiak, hegaztiak, eta adarbakar baten moduko animalia fantastikoak ere.

Guztira, ehun metro koadroko eremua okupatzen zuten horma-irudiek, harik eta aurreko mendeko 80ko hamarkadan, jauregia zaharberritzean, paretatik kendu eta paneletara eraman zituzten arte. Egindako esku-hartzea oso erasokorra izan zen horma-pinturekin, eta euskarri berri batera eraman zirenean ere oso modu desegokian lehenagoratu zituzten.

Zoritxarrekoa izan zen, halaber, pinturen kokapen berria,

bai testuingurutik kanpo utzi zutelako muralen multzoa, bai jendearengandik hurbilegi eta toki desegokietan kokatu zituztelako.

Hartara, Arabako Foru Aldundiaren Zaharberritze Zerbitzuak Lazarragako horma-irudien multzoaren inguruko jardura plan bat abian jarri zuen 2019. urtean, eta azaroan aurkeztu dute lan mardularen lehen emaitza: *Magdalena penitente* izeneko murla lehenagoratu eta Lazarragako bere jatorrizko tokira itzuli dute. Gainera, pintura hori erabili dute multzoaren gainerako pinturretan esku hartzeko jarraibideak ikertzeko. Bestalde, erai-kinaren edukien musealizazioa egin dute, eta horma-pinturak jatorrian egon ziren modu bertuan kokatuko dituzte.

Lazarragako XVI. mendeko pintura-multzo bakarra da Araban jauregi batean aurkitu daitekeena. Teknikari dagokionez ere berezia da, zatirik orokorre-na horma oraindik hezea zegoenean egin zuten, eta xehetasunak, berriz, horma lehorraren gainean. Beraz, pintura horiek "sifreskoak" direla esan daiteke.

**IRAGANA GOGORATU,
GEROAREKIN AMESTEKO
ETA GAURKOAZ GOZATZEKO!**



Asparreneko Udala

Gaunako San Bitor baseliza berritu dute

Egoera kaskarrean zeuden habe nagusiak konpondu dituzte eta eraikinaren teilatua berritu dute, estalki berria behar bezala finkatzeko aurretik hormak indartuz.

Erredakzioa GAUNA

Itxogana mendi azpian dagoen San Bitor ermita egoera txarrean zegoela ikusi ostean hasi zen Gaunako Administrazio Batzarrak eraikinak zituen gabeziak konpondu ahal izateko lanen prozedurarekin. Hain justu ere, ur filtrazioak zeuden, habe batzuen egoera kaskarra zen eta sakristiako estalkiaren zati bat ere erorita zegoen.

Estalkian esku hartu dute eta habe nagusiak konpondu egin dituzte. Aldi berean, estalki berria finkatzeko hormen burualdea ere sendotu eta nibelatu dute. Obren aurrekontua 10.800 euro inguru izan da, Arabako Foru Aldundiak, Vital fundazioak eta Gaunako Administrazio Batzarrak ordaindu dutena.

Lanak, baina, ez dira esku-hartze horrekin amaitu. Administrazio batzarrak iragarri du dagoeneko hasi direla eraikinean egin beharreko hurrengo konponketetan pentsatzen; hain justu ere, ermitaren alboko erre-




San Bitor ermitako lanen irudia. GAUNAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

taulak konpontzeaz gain, egurrezko korua zaharberritzeko asmoa ere badute.

Alavesen zaindaria

Gaunako Bitor, Bitor nekazaria bezala ere ezaguna, Elorriagako nekazari bat izan zen, Gaunatik gertu zegoen San Bernabe baseliza zaharrean erretiratu zena Jainkoari gurtza egiteko. San Bitorri buruz aipatzen den lehen erreferentzia idatzia 1049koa da.

1587. urtean santuaren ustezko gorpua aurkitu zuten, ordutik aurrera bere burezurra XVII. mende hasierako zilarrezko erlikia-ontzi barroko batean kontserbatu zelarik. Gaur egun, ura iragazi ohi da santuaren burezurretik, soroak bedeinkatzeko eta buruko gaixotasunak sendatzeko. Honen aldeko debozioa Araba osora zabaldu da, eta Deportivo Alavesek bere zaindari bezala du 1924. urtetik.



Ramiro Gonzalez eta Arantxa Tapia, araztegiaren obretan. IREKIA

Aguraingo araztegi berriak isurketak saihestuko ditu

Hiriko hondakin-uren instalazio berriaren eraikuntzak 6,35 milioi euroko aurrekontua izan du.

Erredakzioa AGURAIN

Aguraingo araztegi berria 2021aren amaieran jarriko dute abian, eta azken urteetako EAE-ko isurketa arazotsuenetako bati irtenbidea emango dio. Izan ere, saihestu egingo da Zadorrara Lautadako azken urteetako karga kutsatzaile handieneko isurketa egitea. Kontuan izan behar da aurreko araztegiaren funtzionamendu kaskarrak kutsadura-agerraldiak eragin zituela.

Hiriko hondakin-uren araztegiaren eraikuntzak 6,35 milioi euroko aurrekontua du, eta abuztuan egikaritzea aurreikusita

dago. Behin amaituta, URA agintziak sei hilabete izango ditu araztegia prest eta funtzionamendu egokian jartzeko. 2022ko lehen lauhilekoan instalazioa Aguraingo Udalarri lagako zaio, etorkizunean Araban uraren kudeaketa profesionalerako sortutako partzuergoan sar dadin.

Araztegi berriak ekaitz-tanga bat du. Horrek ahalbidetuko du, prezipitazio handiak daudenean, hondakin-urekin nahasten diren euri-uraren emariak atxikitzea, eta, horrela, eragotziko da emariak errearen ibilgura araztu gabe isurtzea.

Zalduondon, hiru mila oilo

Iñaki Urzelai eta Mariaka Egurrola abeltzainek Zalduondon martxan jarri berri duten ustiatetik 3.000 oiloek 840.000 arrautza ekologiko inguru emango dituzte urtean. OVO12 Kooperatibak Hobeia eta Euskalovo markaren bidez merkaturatuko ditu. 300.000 euroko inbertsioa egin behar izan du bikoteak ustiatagia martxan jartzeko, eta Arabako Foru Aldundiak horietako 75.000 jarri ditu, Arabako nekazaritza sektoreari laguntzeko planaren deialdiaren bidez emandako laguntza gisa. Ustiategiaren proiektua 2018an abiatu zuten. Une horretan, landako oiloen arrautzak ekoizteko lerro bat ireki zuten, gerora ekoizpen ekologikora bideratu dena. Lanak joan den urrian hasi ziren eta lau hilabete iraun dute, 2021eko urtarrilaren amaierara arte. Iragan martxoaren 23an inauguratu zuten oilo ekologikoen ustiatagia, Arabako ahalzun nagusiaren eta Nekazaritza diputatuarekin batera.



AFA



ASPARRENGO ARATZ HAURRESKOLA


- Giro familiarra / Ambiente familiar
- Haur bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu / Respetamos el ritmo de cada niño@
- Kanpo espazioa / Espacio exterior
- Naturarekin kontaktua / Contacto con la naturaleza
- Ordutegi zabala / Amplio horario

Zatoz gu ezagutzera!
¡Ven a conocernos!

Santsaerreka, 9

01250 ARAIA

945304249





Ozetako Otaza auzoan kokatzen da Garaion, bertan garatzen diren jarduera ezberdinetarako kokagune paregabeen. GARAION

Sormenaren hazia landatzen

Sorkuntza oro erakartzen duen itsasargia legez, Lautadako erreferente bilakatu da azken urteetan Barrundian kokaturiko Garaion Sorgingunea. Areago. Sorkuntza erakartzeaz gain, sormena zabaltzen du lau haizeetara elkarteak.

Amaia Gartzia BARRUNDIA

Ozeta herriko Otaza auzoan kokatuta dagoen Garaion Sorgingunea ez da espazio hertsia. Ateak zabalik dituen egoitza baten gisan irudikatu behar dugu, sorkuntzaren haizea jaso, baliatu eta bertan geratu ez ezik, berau barreiatzen saiatzen dena. "Gaitasun asko ditugu eta gehienak lo izaten ditugu, horiek pizteak askatasuna eta aukera berriak ematen dizkigute", aipatu du sortzaileetako batek, "eta

benetan garrantzitsua da hori" gaineratu du.

Garaionen jatorria ulertzeko hainbat urte egin behar dugu atzera, 1994. urtera, hain zuzen. Mondragon taldeko Erkoop kooperatibak Arrasateko Txatxilipurdi Elkarteari egun Garaionen egoitza den etxea erabiltzeko aukera eskaini zion, gazteen artean gure hizkuntza bultzatzeko espazio bezala sormen egitasmoen bitartez. Haatik, ez zen 2008. urtera arte izan orain

arte ezagutzen dugun bezala funtzionatzen hasi zela.

Proiektuak auzolana ardatz nagusizat badu ere eta esku ezberdinek eraiki eta aberastu badute ere, hastapen horietan bi izen batu ziren hasierako forma emateko: Amaia Gabilondo eta Julia Lopez, bertako kudeatzaileak eta kooperatibako bazkideak. Lehenengoa Euskararen normalizazioan eta bigarrena Arte Ederren eta ikus-entzunezkoen munduan

trebatutakoa. Garaionen bizi dira biak, baina haiekin batera gutxienez bi edo hiru sortzaile egoten dira ia egunero. Izatez, "sormen fabrika" bezala izendatua dago 2016tik Eusko Jaur-laritzarengatik. Horren bidez, "Sorgune" deritzon laguntza jasotzen dute, zeinak Garaion bezalako espazio kultural independentei egitasmoak sortzeko aukera bermatzen dien, era berean, hauek artista eta sortzaileak lagundu ditzaten euren sormen prozesuetan: "Sormen egonaldietara edota bestelako jardueraren bat antolatu nahi duen talde edo pertsonak gurekin harremanetan jarri eta beti saiatzen gara lekutxo bat eskaintzen".

Udako kanpaldiak

Uda aldean, berriz, iaz ez baina aurreko urte guztietan kanpaldiak izan dituzte Garaionen. Gasteiz, Donostia, Iruñea eta Debagoienako haur eta gazte txoak egon izan dira bertan. Udalekuen bidez ere, autofinantziazioa lortzen dute. Gaur egun, gazteentzako aterpetxe ofizial

izendapena jasotzeko lanean dihardute.

Garaionen helburuak hiru dira nagusiki. Arestian aipatu bezala, lehena sortzailetasuna gizarteratzea da, sormen gaitasuna bultzatu eta guztion sortzailetasuna bizitzeko aukerak eskaintzea. Bigarrena, naturaren egoera hobetzeko erantzukizunez jokatzeko sentsibilizazio lana egitea da, elikaduratik hasita -baratze propioa ere badute-, ura zaizinduz, gure basoak ezagutu eta baso espazioak gehituz. Eta hirugarrena ondare soziala baliolan jartzea da, hau da, lanbide zaharrak gaur egunera ekartzea, baita betidaniko egiteko moduak ere, eta hor auzolana dugu. Azken puntu honen baitan galtzear dauden ofizio zaharren jakituria batu eta eguneratzeko konpromisoa dute, otarregintza eta artilgintza, kasu.

Ezagunak dira inguruan, besteak beste, zumitzarekin egindako Garaiongo egitura ezberdinak, nerabeei zuzendutako tailerren bidez eraikiak. Ikusgarriena, zalantzarik gabe, 250 metro dituen labirintoa da,



Cuencatik ekarritako 10.000 zume biziarekin eraikia. Gaur egun zume-biziarekin jolas-guneak sortzen dituzte, *Bizi-Bizia* proiektuarekin.

"Eta ondarerik preziatuetan eta hiru helburu horiek biltzen dituen euskara da, aipatutako helburu horiek guztiak euskaraz garatzea baita helburu nagusia". Jolasak eta irudimenak euskara bultzatzeko zuten botereaz jabetu zen aspaldi Gabilondo: "Jolasak hizkuntzaren ikasketa prozesu erlaxatuago batean laguntzen du, inolako gatazkarik gabekoa". Sormenak irekitzen dio bidea hizkuntzari. "Konturatu ginen antzerki, dantza, zirko, grafiti, irrati edo telebista tailerretan euskara erraz erabiltzen genuela, eta oso ondo pasatzen genuela, eta poliki harreman hizkuntza ohitura berriak bihurtzeko pausotxoak ematen genituela".

Sormena da iparra

Sormenaren bidetik, auzolanak, bestalde, harreman sare sendo bat sortzeko aukera eman die ere. Sormen jarduerak asko laguntzen dute, guztion nahi eta gogoei irtenbideak eskaintzen. Hori guztia oso osasungarria da, jendartearen arteko aberastasuna sortzen baitu, harreman aberatsagoak: "Taldea izatera, auzotar, lagunarte eta herri izaera lantzen laguntzen du sortzailetasunak. Herri berritzailea izan nahi badugu, sormenean heziak behar dugu izan".

SORMENA LANTZEKO AUKERAK ESKAINTZEA DU HELBURU NAGUSI GARAIONEK BERE SORRERATIK

HAURREN UDALEKUAK, IKASTAROK, TAILERRAK ETA BESTE ZENBAIT PROIEKTU GARATZEN DITUZTE

Hasieretara bueltatuz, auzolana eta *land-art-a* uztartu zizuten Garaionen. Otaza auzoan plataneroak dituzte, eta euren kimatzetik baliatutako adarrak erabiltzen hasi ziren egiturak sortzeko. Arte garaikideko korronte honi jarraiki, naturak berak eskainitako materialak baliatzen dituzte artelanak sortzeko.

Horrez gain, Garaioneko guneak berrizteko funtsezkoa izan da auzolan hori. Baina ez da bakarria izan: "Lastategia antzoki bihurtu genuen bioeraikuntza ikastaro bati eta bertako ikasle taldeari esker, eta hori magikoa izan zen".

Garaionek hiru gune nagusi ditu: bizipenak, haztetxea eta sorgingunea. Bizipenen barruan eskaintzen dituzten programa edo proiektu zehatzak daude, lehen aipaturiko Bizi-bizia proiektu

tu, esaterako. Horrez gain, Euskal Herriko hamaika herri eta eskolatan 16-18 urte bitarteko gazteekin 90 artelan sortu dituzte, eta egun bateko egitasmoak ere eskaintzen dituzte: egun-pasa sortzaileak, zinema, ipuinak edota gastronomia ardatz.

Gaztetxea, ikastaroen txokoa da: "Eskola izena aldatzeko go-go genuen eta hor otarregintza edo bioeraikuntza ikastaroak antolatzen ditugu urtero. Eta puntualki beste ofizio batzuk pizteko tailer aukerak martxan jartzen ditugu: ehungintza, artilearekin edo arto-buru azalarekin".

Baina beste arlo batzuetakoak ere egon izan dira, marrazki bizidunen tailerrak, edota harremanak hobetzekoak, talde dinamikenak, begiraleei zuzendurikoak, edota sortzaile taldeentzat.

Sorgingunea, azkenik, sortzeko guneari lotuta dago. Sortzera, urtero, 100 bat sortzaile joaten dira eta eurekin batera 25 ikuskizunen eskaintza dauka Garaiongo antzokiak. Iragan berri den urtean, pandemiak ez zuen guztiz geldiarazi eskaintza hori: "Covidaren urtean 1600 lagun etorri dira gure ikuskizunetara, oso pozik gaude, bizirik mantendu dugulako sortzaileekin batera Garaioneko jarduera", azaldu du Gabilondok.

Zail dago, ikusten denez, sortzaren garra itzaltzea Lautadan.



Dantza tailerreko partaideak. GARAION



Zirku egunean adin tarte ezberdinetako kideek parte hartu zuten. GARAION



Haur eta gaztetxo taldeei zuzenduta, hezkuntza programa du Garaionek. GARAION



Barrundiako Udala



Barrundia, txikia bezain handia!

"Euskal youtuberrak eta tik-tokeroak behar dira"

DUPLA TALDEA MUSIKARIAK

Gary Uriarte eta Beñat Oribe Aguraingo bikotea dira Dupla taldearen osagaiak. Hip-hopa, trapa, musika elektronikoa eta egungo beste zenbait doinu nahastuta, landa-eremutik musika urbanoa egiteko gaitasuna erakutsi dute bi gazteek. Musikaz haratago, irudiak duen garrantzia ondo barneratuta dauka Duplak.

Marta Sendiu. AGURAIN

2018an jaio zen taldeak *Mundua geld*i abestia argitaratu berri du. Aguraineko bikotearen proposamen musikalak orain arte bizi izan dugun bizitzaren nostalgiaz sortutako tristezia eta egonezinei aurre egiteko proposamena luzatzen digu. Lautadako nekazal izaera galdu gabe, hizkuntzaz, erreferenteez, gazteez


eta kulturaz aritu gara Dupla osatzen duten Gary eta Beñatekin.

2018an egin zenuten debuta 'Somos así' abestiarekin. Kanta ardazten duen gaia bizitzako bilaketa pertsonala izanik, nolakoak dira Duplako Gary eta Beñat norbanakoaren bilaketa horretan?

Gary Uriarte: Harroputza, apurtzailea eta koloretsua dela esan-

go nuke. Bere buruan konfiantza duen pertsonaia, ideia argiak dituen eta aurrean jartzen zaionari modu ausartean aurre egiten diona. Informaltasun kutsua ere badu eta ukitu horrek komedia puntu bat ematen dio.

Beñat Oribe: Duplako Garyren pertsonaiaren nahiko antzekoa da, nahiz eta bigarren plano batean geratzen den pertsonaia



Gary Uriartek eta Beñat Uribe osatzen dute Dupla. DUPLA

izan. *Frontman*-a edo lehenengo ikusten dena Gary da, ni, aldiz, itzalean nago.

Benetako Gary eta Beñat, hots, bizitza errealekoak, Duplan bezalakoak dira? Zenbat dago antzezetan eta zenbat benetako norbanakotik?

G.U.: Nire izaeraren pintzelkada batzuk dira Duplako Gary. Zuk asmatzen duzu pertsonaia,

nahi duzun erara antolatzen duzu eta dituzun barne pertsonalitateko ezaugarriekin osatzen joaten zara. Noski antzezetan dudala! Uste dut gaitasuna dudala pertsonaia bat proiektatzeko eta gutxinaka-gutxinaka hari dagozkion ezaugarriak zehaztasunera eramateko.

Talde bezala asko aldatu zarete 2018ko Duplatik? Eta musikalki?

Dulantzin
ere, nahi baduzu
euskaraz

ALEGRIA-DULANTZIKO Udala

Alegria-Dulantzi

B.O.: Hasieratik elkarrekin sortu dugun proiektua izanik, esango nuke ideia nagusian ez dela aldaketarik izan. Musika-ri dagokionez, inoiz ez dugu gure burua estilo bakar batean sailkatu nahi izan, ez dugu markarik. Abesti batetik bestera alde dago, noski, baina ezberdintasun hori hasieratik izan dugun berezitasun bat izan da.

G.U.: Bi urtetan asko ikasi dugu, "pauso handiak" eman ditugu. Normalean talde batek ez du bi urtetan guk egin dugun bidea egiten; euskal eszenaren ezau-garriak aintzat hartuta, bolo ugari eskaini ditugu. Guretzako erdi naturala izan da prozesu guztia, pixkanaka joan gara bilakaera ikusten.

Uste duzue zuen ibilbidearen arrakastak zerikusia izan duela arabarra eta euskaraz abestearekin?

G.U.: Ezin da ukatu, euskaraz abesteak gure arrakastan eragina izan du.

B.O.: Arabarrak izateagatik ez dugu arrakasta lortu, euskaraz egiteagatik, aldiz, bai. Azken finean produktu berri bat baduzu, berdin da Tuterakoa, Donostiakoa edo beste edozein tokitakoa izatea. Argi dago Donostian mugitzen dela *mobida* guztia, baina gure kasuan eragin gehiago izan du berritasunak eta kontaktuak izateak.

Euskaraz atera zenuten lehen abestia 'Nahi dudana izango naiz' izan zen. Zer izan nahi zenuten txikitari?

B.O.: Nire kasuan ez nuen argi zer izan nahi nuen. Ez dut inoiz ametsetako ofizio bat izan, baina musikarekiko harremana txikitatik datorkidan zaletasun bat izan da, eta horren erakusgarri da hamar urterekin izan nuela lehenengo musika taldea.

G.U.: Sukaldaria eta pailazoa izan nahi nuen, baina egia esan ez neukan batere argi. Argi neukan bakarria sormenarekin lotutako zerbait izango zela. Izan ere, sortzea behar bat da niretzat, berdin zait musika, antzerkia edo dena delakoa, gauza da sormen prozesu bat egotea tartean.

Iragana atzean utzita eta sormen prozesuari dagokionez, nolakoa da zuen sortzeko funtzionamendua?

B.O.: Ez daukagu ezarritako patroirik, nahiko ezberdina izaten da abesti bakoitzean. Logic izeneko programa da gure bidelaguna eta haren bidez egiten ditugu abestiak. Ideia bat daukagunean mugikorrarekin

grabatzen dugu eta gero entsegu lokalean amankomunean jartzen dugu. Horrela izaten da abiapuntua normalean, baina kasu bakoitza mundu bat da. Hala ere, musikariak izateak asko laguntzen digu sormen prozesuan, izan ere, biok dakigu gitarrarekin, pianoarekin edo ahotsarekin progresio bat egiten eta melodia bat ateratzen.

G.U.: Produktua ezberdina izateko prozesua ere ezberdina izan behar dela uste dugu. Batzuetan kontzeptua dugu, adibidez, bideoklip baten irudiaren kontzeptua dut eta horretarako kantu bat egiten ahalegintzen naiz. Beste batzuetan ezerezetik *beat* bat bururatzen zait, eta orduan, hurrengo pausoa hitza zehaztea izaten da. Edo beste batzuetan, letra bat datorkizu eta hitz horiek bideoa nolakoa izan behar den pentsatzera eramaten zaituzte...

Noiz uste duzue abestia amaituta dagoela?

B.O.: Zaila da amaiera ematea abesti bati, eta batez ere zuk egiten duzunean dena. Diru pixka bat izan dugunean estudioetara joan gara eta nahasketak edo produkzioa bertan egiteak arnas pixka bat hartzen uzten dizu.

G.U.: Ez da sana sormen prozesuari amaiera ematea. Zuk hasiera eta amaiera ematen diozunean saturazio puntu bat heltzen da. Jakin behar da delegatzen, objektibotasuna galtzen joaten zarelako. Behin zure lana bukatuta, hirugarren baten eskuetan uzten jakin behar da.

Gehiago edo gutxiago gustatu, estetika zehatz eta landu bat duzue. Uste duzue iruditegi zehatz bat izateak lagundu duela zuen arrakastan?

B.O.: Diferentia izateak lagundu egin digu. Orain arte taldeak bakeroak eta kamiseta beltzarekin igotzen ziren oholtzara, eta estetika hori ez zen begietatik sartzen. Gu saiatzen gara belarritik eta baita begietatik ere sartzen.

G.U.: Zehatza izateak ez, baina landua izateak lagundu digu. Normalean gizonok ez diogu arlo estetikoari begiratzen. Lotsa ematen dio Euskal Herriko rockero bati etikari begiratzeari, baina Los Angeles edo Londreseko rockero batek sekulako piurak eraman ditzake. Hori bai, gitarrari garrantzia ematea ondo ikusita zegoen,

baina alkandora ordu batez aukeratzen egotea ez dago ondo ikusia. Gu horretaz arduratzen gara; jendearekin lan egiten dugu haiekin ikasten joateko.

'Hamaika gara' bideokliplean estilismo berezia zegoen, ezta?

G.U.: Euskal Herriak identitatearekin lotuta erreferente batzuk behar ditu. Jaleo, Julene Gregorio, Peio Reparaz, Izaro.. Figura esanguratsuenek euskal markei bultzada bat emateko ahalegina egiten dute. Pertsonalki gehiago edo gutxiago gustatu ahal zaizkit, baina keinu bat egitea ideia ona iruditzen zait. Antzeko zerbait gertatzen da *Akelarre* filmarekin. Behar bada niri pertsonalki ez zait gehiegi gustatzen, baina bikaina da hainbeste arrakasta izatea eta Goya bat irabaztea.

Hori da Rural Kidsen filosofia, ezta?

G.U.: Arte edo modalitate guztiak barnebiltzen dituen disziplina arteko sarea behar dugu, bai Agurainen, bai Euskal Herrian.

Zer nolako lotura duzue Twenty One Pilots taldearekin? Formatu aldetik bide-erakusleak izan dira?

G.U.: Gure proiektua martxan jartzeko momentuan Twenty One Pilots erreferente nagusi izan genuen. Lehen gaizki ikusita zegoen musika "disparatzea", baina gaur egun gero eta talde gehiagok apustu egiten dute biko formatuarekin. Ordenagailuen munduak beste espektro bat ireki du musikan eta raperoek aitzindari lanak egin dituzte...

B.O.: Begi-bistakoa da azken bi urteetan formatu hau gehiago hedatu dela. Hala ere, argi geneukan ez genuela DJ formatua erabili nahi. Nahasketa mahaia bateriarekin ordezkatu zitekeela ikusi genuenean ideia bikaina iruditu zitzaigun, eszenatokia beste modu batean janzten baitu.

Gazteekin eta kulturarekin jarraituz, uste duzue gazteek euskal kultura kontsumitzeko ohitura dutela?

B.O.: 18 urte beherakoek ez dute euskal kultura kontsumitzeko ohiturarik. Kultura kontsumitzen da, baina euskal kultura ez. Euskal youtuberrak, euskal tik tokeroak behar dira eta sortzeko daude. Hemengo youtuber batek gaztelaniara jotzen du eta hori joera naturala da. Honetaz bizi nahi baduzu industria gehiago dago erderaz, eta hori horrela da! ■■■



'Mundua geldi' abestia argitaratu berri du Duplak. DUPLA

ALDAIA

✂
✂

taberna

945 31 70 64

www.tabernaaldaia.com

LARREA (Araba)

AGURAINGO HAURRESKOLA



Matrikulazio epea (Online eta aurrez-aurre) Apirilaren 12tik 21era.	Plazo de matriculación (Online y presencialmente) Del 12 al 21 de Abril.
--	---

Haurreskola ikusi nahi izanez gero hitzordua eskatu behar da:
Si queréis ver la haurreskola hay que pedir cita:

945 30 12 93

agurain.agurain@haurreskolak.eus

GOITIBEHERA

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

Nola jokatu? Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu behar duzun hitzak.
1. Zine aretoak. **2.** Donemiliagako kontzejua. **3.** Landetako hiriburua. **4.** Nafarroako ibaia. **5.** Gabezia. **6.** Ez gazia. **7.** Balezta zaurtikitzeko arma. **8.** Lodia, potoloa. **9.** Noka, diogu.

	HITZ GEZIDUNA	GOITIBEHERA																																																																																																																																																
SOLUZIOAK	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <tr><td>V</td><td>U</td><td>T</td><td>I</td><td>V</td><td>R</td><td>L</td><td>O</td><td>W</td></tr> <tr><td>Z</td><td>L</td><td>E</td><td>Z</td><td>E</td><td>O</td><td>K</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>E</td><td>S</td><td>I</td><td>V</td><td>I</td><td>B</td><td>O</td><td>H</td><td></td></tr> <tr><td></td><td>V</td><td>R</td><td>E</td><td>K</td><td>O</td><td>P</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>R</td><td>A</td><td>T</td><td>A</td><td>R</td><td>B</td><td>E</td><td>R</td></tr> <tr><td>E</td><td>R</td><td>V</td><td>L</td><td>O</td><td>D</td><td>L</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>R</td><td>L</td><td>A</td><td>R</td><td>B</td><td>E</td><td>O</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>E</td><td>N</td><td>A</td><td>N</td><td>E</td><td>O</td><td>I</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>P</td><td>G</td><td>B</td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr> </table>	V	U	T	I	V	R	L	O	W	Z	L	E	Z	E	O	K			E	S	I	V	I	B	O	H			V	R	E	K	O	P			V	R	A	T	A	R	B	E	R	E	R	V	L	O	D	L			R	L	A	R	B	E	O			E	N	A	N	E	O	I			P	G	B							<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse; text-align: center;"> <tr><td>U</td><td>G</td><td>V</td><td>N</td><td>E</td><td>I</td><td>Z</td></tr> <tr><td>V</td><td>N</td><td>E</td><td>Z</td><td>I</td><td>G</td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>Z</td><td>E</td><td>G</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>Z</td><td>E</td><td>G</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>Z</td><td>E</td><td>G</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>K</td><td>Z</td><td>E</td><td></td><td></td><td></td></tr> <tr><td>E</td><td>Z</td><td>I</td><td>K</td><td>A</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>V</td><td>K</td><td>Z</td><td>E</td><td>M</td><td></td><td></td></tr> <tr><td>K</td><td>A</td><td>R</td><td>Z</td><td>I</td><td>N</td><td>E</td></tr> </table>	U	G	V	N	E	I	Z	V	N	E	Z	I	G		V	Z	E	G				V	Z	E	G				V	Z	E	G				V	K	Z	E				E	Z	I	K	A			V	K	Z	E	M			K	A	R	Z	I	N	E
	V	U	T	I	V	R	L	O	W																																																																																																																																									
	Z	L	E	Z	E	O	K																																																																																																																																											
	E	S	I	V	I	B	O	H																																																																																																																																										
		V	R	E	K	O	P																																																																																																																																											
	V	R	A	T	A	R	B	E	R																																																																																																																																									
	E	R	V	L	O	D	L																																																																																																																																											
	R	L	A	R	B	E	O																																																																																																																																											
	E	N	A	N	E	O	I																																																																																																																																											
	P	G	B																																																																																																																																															
U	G	V	N	E	I	Z																																																																																																																																												
V	N	E	Z	I	G																																																																																																																																													
V	Z	E	G																																																																																																																																															
V	Z	E	G																																																																																																																																															
V	Z	E	G																																																																																																																																															
V	K	Z	E																																																																																																																																															
E	Z	I	K	A																																																																																																																																														
V	K	Z	E	M																																																																																																																																														
K	A	R	Z	I	N	E																																																																																																																																												

HITZ GEZIDUNA

(*) Bertsolari arabarra.

Sudurpeko ile multzo		Nafarroako udalerrria		DEITURA	
*	IZENA	*	Etorrarazi	*	Narras bihurtu
▶		▼		▼	
Landare xehe	▶				
Badu horren berri, ba...					
Iduneko	▼	Sagar prentsa	▶		
Berakoa		Automata			
▶		▼			
Korrokada	▶			Bokala	▶
Hilobi				Behorra arreske	Gabezia
▶			Erraz	▶	▼
			Bizkaiko herria		
Errep., txori mota	▶		Ez eta ez eta ez	▶	
Aleak birrintzeko tresna			Kontsonantea		
▶		▼			

Hogar Larrea
Residencia para Mayores

945 31 72 02

Etxebitarte 2,
Larrea (Araba)

Bultzatzaileak

ALEA
arabako aldizkaria

Lautadako Euskararen Komunitatea

Laguntzaile publikoak

"Lautadako ALEA" aldizkaria Lautadako Euskararen Komunitateak eta Arabako ALEAk elkarlanean garatutako proiektua da.

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio taldea S.L.
Antonio de Sucre 1
01003 Gasteiz ARABA

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar
Mirian Biteri
Estibxu Ugarte
Mikel Buruaga
Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda
Saio Perez de Muniain

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus
Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus
Tel.: 945 71 60 09

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behea
01003 Gasteiz (ARABA)
Tel.: 945 71 60 09
info@alea.eus

Lege Gordailua:

VI-32-2015
ISSN: 2386-8961

Inprenta

Bidasoa inprimatzeko zentroa

Tirada:

7.000 ale

Banaketa

Tarteka Media
Lautadako Euskararen Komunitatea

HARREMANETARAKO DATUAK

LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA
Zapatari 31, 01200 Agurain (Araba)
lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitakoen erantzukizunik. Kolaboratzaileak: Amaia Gartzia, Naiara Lopez de Uralde, Oihane Perea eta Patxi Otamendi.

FUNDACIÓN *Vital* FUNDAZIOA

ZURE BIZIERAREKIN BAT EGITEN DUGU

Etxean aurrezteak, noski.
Izena emango duzu?



Etxe Berdeak



945 776 858

Izena emateak hemen:

fundacionvital.eus



“Zuk zuzendutako orkestra baten gisakoa izan daiteke bizitza”.

Fernando Velázquez / *Konpositorea eta orkestra-zuzendaria*

HIPOTEKA EROSOA

Erritmoa zeuk finkatzen duzu.

Bizitza zeure erritmora zuzentzea, zure egoeraren eta beharren arabera. Horixe ahalbidetzen dizu Hipoteka Erosoak; izan ere, **ordaintzeko eguna erabaki dezakezu, eta modua eta kopurua aldatu***.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

* Kuotak hileko zein egunetan ordaindu erabaki ahal izango da. Kuota txikitzeko aukera egongo da, aldez aurretik ordaindu bada, eta ezingo da hasierako epea gainditu. Hasierako kapital-gabealdia: urtebetean kapitalik ez ordaintzeko aukera egongo da. Eta tarteko kapital-gabealdia: beste bi gabealdi ere eskatu ahal izango dira, horietako bakoitza 6 hilabetekoa, betiere batetik bestera gutxienez urtebeteko tartea baldin badago.